

# Abarrak

UNAI BREA

## Aurreikuspenak

**FlashForward.** Zuzendariak: David Goyer, Michael Rymer, Bobby Roth. Aktoreak: Joseph Fiennes, Sonya Walger, John Cho, Courtney B. Vance. AEB. 2009.

2009KO UDAZKENA. Egun arrunta, goizeko 11:00k aldera. Bat-batean, planeta honetako biztanle guztiek konortea galtzen dute, aldi berean. 137 segundo geroago, denak esnatzen dira (gara?), minutu biko kontzientzia galerak eraginda istripuren batean hil direnak izan ezik, milaka.

Horrela hasten da *FlashForward*, mundu zaba-lean arrakasta itzela lortzen ari den estatubatuar telesaila. Izenburuak *flash-back*-en aurkakoa esan nahi du: konortetik gabe emandako denboran, mundu guztiak ikusi du bere etorkizuna, eta denek une bera gainera: datorren apirilaren 29ko iluntzea. Hortik aurrerakoa...

Hego Euskal Herrian telesailaren laugarren kapitulu-ua ematear daude lerrook izkiriartzean, Iparraldean aurreratuxeago gabiltza. Eta aitortzen dut, zeharo atxiki nau *FlashForward*-ek, ezin luzeago egiten zaizkit kapitulu eta kapitulu arteko astebeteko itxaronaldiak. Oraintxe ohartu naiz “eta aitortzen dut” esan dudala, barkamena eskatu behar balitz bezala estatubatuar ikus-entzunezko produktu ondo landu baten zale izateagatik. Irratian entzun berri dut ospe handiko aktore asko zinematik telebistarako bidea hartzen ari direla AEBetan, pantaila txikian aurkitu omen dute Hollywoodetik ihesi doan kalitatea. Ados nago. Telebistan nahiz zinema-  
man, baliabide teknikoak gainezka dabilta “amerikarrak”; gidoi onak nahi badituzu berriz, 625 lerroetara jo beharko duzu gero eta gehiago. *FlashForward*-en kasuan, izen bereko eleberriarren idazleari (Robert J. Sawyer) egozten zaio telesailaren aita izatea. Konortea galdu gabe ere, aurreikus dezaket apirila amaieran aberatsagoa izango dela orain baino.

FLASHFORWARDTV.COM



ZIENTZIA

NEURRI - NEURRIRA


CAF  
ELHUYAR   
sariaK09

KATEGORIAK:

- Dibulgazio-artikulu originalak
- Gazteei zuzendutako zientzia-narratioak
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak

Informazio gehiago eta oinarriak:

<http://www.elhuyar.org/zientziaren-komunikazioa>



CAF

ELHUYAR  
fundazioa